**ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAK ERORIKOETATIK NORBERA BABESTEKO SISTEMAK BERRIKUSTEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO. 3143. ESPEDIENTEA**

| | |
|---|---|
| **Erregulazio harmonizatuko kontratua** | ☐BAI ☒EZ |
| **Espedientea izapidetzea** | ☒Ohikoa, ☐Urgentea, ☐ Larrialdia,<br>☐Aurreratua |
| **Mota** | ☒ Irekia<br>☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.)<br>☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.) |

| A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA | |
|---|---|
| **1.- Botere adjudikatzailea:** | Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/<br>Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa |
| **2.- Kontratazio-organoa:** | ☐ Zuzendaritza Batzordea<br>☐ Presidentea<br>☒ Gerentea |
| **3.- Kontratuaren arduraduna:** | Iker Goyarrola Ugalde |
| **4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:** | contratacion@consorciodeaguas.eus<br>Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100 |
| **5.- Kontratatzailearen profila:** | www.consorciodeaguas.eus<br>https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/ |

**B.- KONTRATUAREN XEDEA**

**1.- Kontratuaren xedea**: **BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOARI ERORIKOETATIK NORBERA BABESTEKO SISTEMAK BERRIKUSTEKO ZERBITZUA EMATEA**

**2.- Zer beharri erantzun behar zaien**: Kontratuaren objektua da BBUPi erorikoetatik norbera babesteko sistemak eta salbamendurako altxatze-sistemak berrikusteko zerbitzua ematea, sistema horiek egoera egokian daudela bermatzeko/dokumentatzeko eta izan ditzaketen akatsak, kalteak, higadurak, zikinkeria edo sistemen eraginkortasuna muga dezakeen beste edozein alterazio detektatzeko.

**3.- Loteka banatzea**: ☐ Bai ☒ Ez

**Loteka ez banatzearen justifikazioa**: Ez dago loteka lizitatzeko aukerarik. Izan ere, kontratuaren objektuan jasotako prestazioetako batzuk era independentean egitez gero, ikuspegi teknikotik, zailagoa izango da kontratua zuzen betetzea.

**4.- CPV:**

CPV kodea: 50610000-4 / 73431000-2

Deskribapena: Segurtasun-ekipoen konponketa- eta mantentze-zerbitzuak / Segurtasun-ekipoen probak eta ebaluazioa

**5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna**:

☐ BAI

☒ EZ

Onartzeko kondizioak eta aldaera edo alternatibarik izan lezaketen elementuak: Ez dagokio

**6.- Izaera juridikoa**

☒Administratibo ☐ Pribatua

| C.- KONTRATUAREN PREZIOA | |
|---|---|
| **1.- Lizitazio-aurrekontua**<br>(BEZa gabe) | **BERROGEITA BOST MILA (45.000,00) EURO** |
| **2.- Kontratuaren balio zenbatetsia**: 225.000,00 euro<br>Loteak:<br>☐ BAI<br>☒ EZ | |
| **3.- Prezioa zehazteko sistema**:<br>☐ Oroharreko prezioa<br>☒ Prezio unitarioak | |
| **4.- Urterokoak eta aurrekontu-kontsignazioa**:<br><br>Kontratuaren aurrekontu-urterokoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:<br><br>2025. urtea: Aurrekontu-partida: 21201.92001 35.000 €<br>2026. urtea: Aurrekontu-partida: 21201.92001 10.000 € | |
| **5.- Prezioen berrikuspena**:<br>☐ BAI<br>☒ EZ | |
| **6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin**:<br>☐ BAI ☒EZ | |
| **7.- Ordaintzeko modua**: Arrunta. Hileko ziurtagiria. | |
| **8.- Konturako ordainketak**: Ez. | |

| D.- KONTRATUAREN EPEA |
|---|
| **1.- Iraupen osoa**<br>**URTEBETE (1)** |
| **2.- Epe partzialak**.<br>☐ BAI ☒ EZ |
| **3.- Luzapena**<br>☒ BAI ☐ EZ<br>Lau (4) luzapen gehienez, urtebetekoa bakoitza. |
| **4.- Bermealdia**: Ez dagokio |
| **5.- Kontratua exekutatzeko tokia**: Ur Partzuergoaren hainbat instalazio. |
| **6.- Lanak zatika jaso daitezke** ☐ BAI ☒ EZ. |

| E.- BERMEAK | | |
|---|---|---|
| ☒Behin betiko bermea: % 5 | | Zenbatekoa: Adjudikazioa |
| ☐ Berme osagarria: | Zenbatekoa: | |

| F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA |
|---|
| Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko zenbatekoa halako bat izan beharko da gutxienez. (45.000,00 euro). |

| G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA |
|---|
| Kontratu honen objektuan jasotako zerbitzu mota berean azken 3 urteetan egindako zerbitzuen zerbitzua, zenbatekoak, datak eta hartzaileak adierazita. Gutxieneko baldintza hau bete beharko da: jardun handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70 edo gehiago izatea. Emandako zerbitzuak edo egindako lanak egiaztatzeko, dagokion organoak emandako jardun onaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.<br><br>☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoa:<br><br>Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeko ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak. |

| ENPRESA-SAILKAPENA |
|---|
| **ENPRESA-SAILKAPENA** ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez |

| H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK |
|---|
| 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena. |
| 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa. |
| 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa. |

**BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

- Eskainitako zerbitzuari buruzko memoria, barne hartuta baldintza-agiri honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar den informazioa. Besteak beste, informazio hau: Memoria teknikoa eta zerbitzua emateko metodologia.
  - Kontraturako jarritako baliabide teknikoak:
    - Kontraturako jarritako baliabide materialak.
    - Kontraturako jarritako giza baliabideak. Langileen prestakuntza eta historia profesionala.
  - Ingurumen-irizpideak eta irizpide sozialak: Egiaztagiriak:
    - Erorikoen aurkako sistemak instalatzeko, berrikusteko, konpontzeko eta hornitzeko jardueretarako ezarritako ingurumen-kudeaketako sistemaren indarreko ziurtagiria.
    - Kontratura adskribatutako langileentzako prestakuntza-plana.

- Beste alderdi batzuk: egiaztagiri hauek:
  - Erorikoen aurkako sistemak instalatzeko, berrikusteko, konpontzeko eta hornitzeko jardueretarako ezarritako kalitate-kudeaketako sistemaren indarreko ziurtagiria.
  - Erorikoen aurkako sistemak instalatzeko, berrikusteko, konpontzeko eta hornitzeko jardueretarako ezarritako segurtasun- eta osasun-kudeaketako sistemaren indarreko ziurtagiria.

**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

**Proposamen ekonomikoa**, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskainitako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.
b) Kontratuaren aurrekontua.

## AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Preskripzio tekniko partikularren agirian zerrendatutako lanak benetan egindako lanen arabera ordainduko dira, eta lizitatzaileak honako prezio unitario hauek sartu beharko ditu eskaintzan, izaera loteslearekin:

| Kontzeptua | Azalpena | Prezio unitarioa |
|---|---|---|
| Sistemen berrikuspena: Galindoko HUA Beteluriko EUT | Galindoko HUAn edo Beteluriko EUTan kokatutako eta preskripzio teknikoen agiriaren 3.1 apartatuan aipatuetako edozein sistema edo osagai berrikustea.<br>Prezio unitarioak barne hartuko du berrikuspena, eta, hala badagokio, berrikuspenetik eratorritako gainerako jarduketak ere bai (preskripzio teknikoen agiriko 3.2, 3.3, 3.4, 3.5 eta 3.7 apartatuak).<br>BBUPek Galindoko HUAn eta Beteluriko EUTan berrikusi beharreko sistemen eta osagaien zerrenda bat emango dio adjudikaziodunari kontratu-urte bakoitzaren hasieran. | |
| Sistemen berrikuspena: Beste kokaleku batzuk | Galindoko HUAkoez edo Beteluriko EUTkoez bestelako edozein sistema edo osagai berrikustea, preskripzio teknikoen agiriaren 3.1 apartatuan adierazitakoaren arabera.<br>Prezio unitarioak barne hartuko du berrikuspena, eta, hala badagokio, berrikuspenetik eratorritako gainerako jarduketak ere bai (preskripzio teknikoen agiriko 3.2, 3.3, 3.4, 3.5 eta 3.7 apartatuak).<br>BBUPek beste kokaleku batzuetan berrikusi beharreko sistemen eta osagaien zerrenda bat emango dio adjudikaziodunari kontratu-urte bakoitzaren hasieran. | |
| Presazko berrikuspena | Edozein sistema edo osagai berrikustea, preskripzio teknikoen agiriko 3.8 apartatuaren arabera.<br>Prezio unitarioak barne hartuko du berrikuspena, eta, hala badagokio, berrikuspenetik eratorritako gainerako jarduketak ere bai (preskripzio teknikoen agiriko 3.2, 3.3, 3.4, 3.5 eta 3.7 apartatuak). | |
| Beste berrikuspen batzuk | BBUPek eskatutako edozein sistema edo osagairen berrikuspena, edozein kokalekutan:<br>✓ Adjudikaziodunak berrikusi zuen, baina ez dira hamabi hilabete igaro azken berrikuspenetik.<br>✓ Ez da ageri BBUPek kontratu-urte bakoitzaren hasieran emandako berrikusi beharreko sistemen eta osagaien zerrendetan.<br>Prezio unitarioak barne hartuko du berrikuspena, eta, hala badagokio, berrikuspenetik eratorritako gainerako jarduketak ere bai (preskripzio teknikoen agiriko 3.2, 3.3, 3.4, 3.5 eta 3.7 apartatuak). | |

Zenbateko horiek guztiek zerbitzuaren kostu osoa jaso beharko dute, zerbitzurako jarritako langileen eta baliabide materialen gastu guztiak barne.

**NEURKETAK EDO KONTRATUAREN AURREKONTUA.**

Lizitatzaileek honako neurketa hauek erabiliko dituzte eskaintza ekonomikoa egiteko, prezio unitarioak aplikatuta.

**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

| Kontzeptua | Azalpena | Prezio unitarioa | Neurketa | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|---|
| Sistemen berrikuspena: Galindoko HUA Beteluriko EUT | Markatutako prezio unitarioan ordainduko BBUPek, dagokion berrikuspen-ziurtagiria jaso ondoren. | | 650 | |
| Sistemen berrikuspena: Beste kokaleku batzuk | Markatutako prezio unitarioan ordainduko BBUPek, dagokion berrikuspen-ziurtagiria jaso ondoren. | | 700 | |
| Presazko berrikuspena | Markatutako prezio unitarioan ordainduko BBUPek, dagokion berrikuspen-ziurtagiria jaso ondoren. | | 12 | |
| Beste berrikuspen batzuk | Markatutako prezio unitarioan ordainduko BBUPek, dagokion berrikuspen-ziurtagiria jaso ondoren. | | 60 | |

Neurketan erabilitako zenbakiak gutxi gorabeherako balioak dira, eta horiek lortzeko agiri hauek egin diren datan inbentarioan jasotako unitate kopuruari epe labur/ertainera aurreikusitako ekipo kopuru handiagoa gehitu zaio. Benetan egikaritutako unitateen kopuruan aldaketak gerta daitezke, eta likidazioan jaso ahal izango dira, baina ezin izango da inola ere kontratuari dagokion urteko zenbateko osoa gainditu.

**I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA**

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu

**J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.**

Lehendakaria:
☒Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:
Ekaitz Mentxaka Corral jn.

Kideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jn.
Xabier Orue Moro jn.
Itziar Zarate Urrutia and.
Gerardo Latorre Pedret jn.
Jose Manuel Pereda Renobales jn.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jn.

**K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**

**1.- Adjudikazio-irizpideak**:

## K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa esleitzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU**

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax ............................................................ 50 puntu
(Bmax + BBB) / 2 .......................................... 48 puntu
BBB .............................................................. 47 puntu
0,8 x BBB...................................................... 46 puntu
0,6 x BBB...................................................... 44 puntu
Lizitazio-aurrekontua........................................ 0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.

- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona

- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzaile bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.
Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta 0 < Bi <= 0,6 x BBB

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta 0,6 x BBB < Bi <= 0,8 x BBB

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta 0,8 x BBB < Bi <= BBB

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta BBB < Bi <= (BBB + Bmax) / 2

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBB)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta (BBB + Bmax) / 2 < Bi <= Bmax

(2 x Bi – BBB - Bmax)

**K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**

Pi = 48 + ----------------------- x 2

(Bmax - BBB)

**BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU**

- **Memoria teknikoa eta zerbitzua emateko metodologia ……………………………………… 0-25 puntu**
  - Proposamen teknikoa kontratuaren objektura egokitzea. Proposatutako zerbitzuaren egokitasuna

- **Kontraturako jarritako baliabide teknikoak ……………………………… 0-16 puntu:**

  - Kontraturako jarritako baliabide materialak
  - Kontratura adskribatutako giza baliabideak. Langileen prestakuntza eta historia profesionala. Preskripzio teknikoen agirian deskribatutakoen antzeko eginkizunetan egiaztatutako esperientzia balioetsiko da, bai eta kontraturako proposatutako langileen prestakuntza ere (besteak beste, prestakuntza eta fabrikatzaileek azterketak egingo dituzten langileei emandako ziurtagiriak balioetsiko dira).

- **Ingurumen-irizpideak eta irizpide sozialak…............................................................ 0-4 puntu**
  - Adjudikaziodunak erorikoen aurkako sistemak instalatzeko, berrikusteko, konpontzeko eta hornitzeko jardueren arloko ingurumen-kudeaketako sistema bat ezarrita izatea balioetsiko da, ziurtatua eta indarrean (EMAS, ISO 14001, Ekoscan).
  - Kontratura adskribatutako langileen prestakuntza-planak eta -ikastaroak. Adjudikaziodunaren irismena eta konpromisoa.

- **Balioetsiko diren beste alderdi batzuk.......................................................................................... 0-5 puntu**

  - Adjudikaziodunak erorikoen aurkako sistemak instalatzeko, berrikusteko, konpontzeko eta hornitzeko jardueren arloko kalitate-kudeaketako sistema bat ezarrita izatea balioetsiko da, ziurtatua eta indarrean (ISO 9001 edo antzekoa).
  - Adjudikaziodunak erorikoen aurkako sistemak instalatzeko, berrikusteko, konpontzeko eta hornitzeko jardueren arloko segurtasun- eta osasun-kudeaketako sistema bat ezarrita izatea balioetsiko da, ziurtatua eta indarrean (ISO 45001 edo antzekoa).

**2.- Berdinketa hausteko irizpideak**:
Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzaileak duen egoera kontuan izanik:
a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

**3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak**:
Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:
- Baldin eta, lizitatzaile bakarra egonik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzaile egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzaile egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarra baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-

| K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK |
|---|
| hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.<br>- Lau lizitatzaile edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatuko da.<br>Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten. |
| **4.- Lizitatzaileari, hautapen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea**:<br>Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea. |

| L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK |
|---|
| PTPAn zehaztutakoak. |

| M.- ZIGOR ZEHATZAK |
|---|
| PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak. |

| N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA |
|---|
| Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko asegurua dagoelako egiaztagiria. |

| Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA |
|---|
| Ez-aplikagarria. |

| O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA |
|---|
| ☒Hasieran aurkezteko betebeharra |

| P.- SUBROGAZIOA |
|---|
| Ez |

| Q.- ERREKURTSO BEREZIA |
|---|
| ☒ BAI<br>☐ EZ |

| BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN |
| --- |
| Adjudikaziodunak giza talde iraunkorra bermatu beharko du, eta, bajarik bada, ordezkapenak egingo ditu, eta ordezkoek baldintza-agirietan exijitutako prestakuntza- eta esperientzia-maila izan beharko dute. Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratua gauzatzeko behar diren baliabide teknikoak eskura dituela bermatu beharko du.<br>Adjudikaziodunak kontratua adjudikatzeko eskatzen den eta kontratuaren iraunaldian iraungitzen den dokumentazio ororen kopia eguneratua bidali beharko du.<br>Adjudikaziodunak zerbitzuaren kalitatea bermatu beharko du kontratu osoan zehar: gaitasun teknikoa eta profesionala, epeak betetzea eta zerbitzua ematea, besteak beste.<br>Adjudikaziodunak une oro bete beharko ditu lan-arriskuen prebentzioari buruz aplikatzekoak diren arauak. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legetik eta hura garatzeko arauetatik eratorritako betebeharrak betetzen direla behar bezala ez egiaztatzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke. |
| KONTRATISTAREN ORDEZKARIA<br>Kontratuaren adjudikaziodunak kontratistaren ordezkari bat izendatuko du. Ordezkari hori adjudikaziodunaren eta BBUPen arteko harremanaz arduratuko da, eta BBUPekin harremanetan jartzeko behar den konpetentzia, gaitasun teknikoa eta erabakimena izango ditu, eta lantalde osoa zuzenduko du. |